

IKERKUNTZA. Besteak beste, haurdunaldian gaitza duten emakumeentzat izango da

Barizelaren aurkako txerto berria sortu dute Erresuma Batuan

Orain arteko sendagaiak ez bezala, haurrei oso kasu jakinetan ezarri ahal izango zaie

Erredakzioa | DONOSTIA

Erresuma Batuko hainbat zientzialarik barizela edo astanafarrerriaren aurkako txerto aitzindaria landu dute. Azken urteetan gaitzaren aurkako hainbat txerto sortu dituzte Ameriketako Estatu Batuetan eta Japonian. Hala ere, txerto horien erabilera oso mugatua da. Izan ere, haurrei soilik ezarri ahal zaizkie. Txerto berria, berriz, 13 urte baina gehiago dituztenentzat da. Ikerketa egin duten zientzialarien arabera, haurrei oso kasu jakinetan ezarri ahal izango zaie.

Barizela ohiko gaitza da mundu osoan. Eritasuna dutenei azalean gorriuneak eta pikorrak ateratzen zaizkie, eta oso kutsakorra da. Gaitzak batez ere 10 urte baina gutxiagoko haurrei eragiten dien arren, helduek ere paira dezakete. Hain zuzen ere, gaitzaren ondorioak larriagoak dira helduengan haurrengan baino.

Nigel Higson zientzialariaren



arabera, «urtero 20 pertsona heldu hiltzen dira Erresuma Batuan barizelarekin. Hildako gehienak gaitza duten haurrekin harreman zuzena izandakoa dira, esaterako, erietxeetako langileak». Higsonek ikerketaren garrantzia azpimarratu du: «Ezohikoa da heldu batek asta-

nafarrerria harrapatzea. Hala ere, ondorioak haurrengan baina askoz ere kaltegarriagoak dira».

Haurdun dauden emakumeentzako egokia

Haurdunaldian barizela izateak ondorio kaltegarriak izan ditza-

ke haurrengan. Fetuaren malformazioak arruntak dira, eta haurrengan heriotza eragin dezakete.

Hori dela eta, zientzialarien arabera, txerto berria bereziki gomendagarria da haurdunaldian astanafarrerria pairatzen ari diren emakumeentzat.

INGURUMENA. Zientzialariek agertu dutenez, ziurrenik zetazeoak galdu egin ziren



MICHAEL DWYER / AP

30 balea hil dira Massachusettseko hondartzan

Uztailaren 29an, 46 balea agertu ziren Massachusettsen (Ameriketako Estatu Batuak), hondartzan. Adituek oraindik ez dute argitu baleak zergatik agertu diren Massachusettseko hondartzan. Dena dela, galdu egin zirela uste dute. Azken egunetan bio-

logo eta zientzialari ugari lanean aritu dira, baleak itsarora bueltatzeko asmoz. Kontuak kontu, ahaleginak antzuak izan dira, eta oraingoz 30 zetazeo hil dira. Animalien Ongizaterako Nazioarteko Funtseko bozeramaile Christopher Baileyk na-

barmendu duenez, oso litekeena da gainerrako baleak ere hiltzea. Baileyk adierazi duenez, baleak beroaren ondorioz hiltzen dira, itota. Hil ez daitezten, azalean ura etengabe bota eta burua altzatzen diete, ez itozteko.

LAGURAEAN

IKERKUNTZA

Ile-apaintzaileek haurdunaldian arazo gehiago izateko arriskua dutela ondorioztatu dute

British Medical Journal aldizkariak kaleratutako ikerketa baten arabera, ile-apaintzeetan lan egiten duten emakumeek haurdunaldian arazoak izateko arriskua dute. Ikerketaren arabera, fetuari kalte egiten dioten produktu kimiko ugari erabiltzen dituzte ile-apaintzaileek. Ikerketaileek Suediako 7.000 ile-apaintzaile aztertu zituzte 25 urtez. Zientzialariek frogatu zuten, ile-apaintzaileen %7,3k arazoak izan zituzten haurdunaldian. Kopuru hori ohikoa baina askoz ere handiagoa da.

INGURUMENA

Izurrite batek arriskuan jar dezake Alemaniako itsas txakurren etorkizuna

Azken hilabeteetan 2.000 itsas txakur hil dira Danimarkan, Suedian eta Norvegian, PDV izeneko birusak sortutako izurrite baten erruz. Gaitzak arnasketa sistemari erasotzen dio, eta animaliak itota hiltzen dira. Orain, izurritea Alemaniara ere zabaldu da. Azken egunetan bost itsas txakur hil dira PDV birusaren ondorioz. Izurriteak Alemaniako itsas txakurren etorkizuna arriskuan jar dezakeela iradoki dute zientzialariek.

OSASUNA

62 lagun hil dira Madagaskarren birus ezezagun baten ondorioz

Iragan astean 62 lagun hil ziren Madagaskarren, birus ezezagun batek jota. Adituen arabera, gaitzak katarro baten antzeko sintomak ditu. Hori dela eta, lehen sintomak agertu bezain azkar lehenbailehen sendagilearengana joatea gomendatu dute. Izan ere, gaitza garaiz antzematen ez baldin bada, bizirik irauteko aukera gutxi daudela esan dute adituek.

PALEONTOLOGIA

Duela bi milioi urteko elefante baten fosila aurkitu dute Txinan

Txinako hainbat arkeologok duela bi milioi urteko elefante baten fosila aurkitu dute Yunnanen. Lehen elefanteak eskualde horretan sortu zirela uste dute. Adituek harrigarritzat jo dute aurkikuntza, fosila oso egoera onean da goelako.